

Euskal Botere Judizial propioaren inguruan: izandakoak, direnak eta beharko luketenak

Mikel Tomas Fidalgo Astigarraga

UPV/EHUko Zuzenbide Publikoa Saileko doktoretza aurreko ikertzailea

Arauen sakabanaketaren fenomenoak eragin handia izan zuen euskal lurraldeetan, eta, horren ondorioz, foruak eratu zituzten lurralde bakoitzean. Horiek aplikatzeko Bizkaiko 1526ko Foru Berriak justiziaren antolaketa garrantzitsua jaso zuen, baina gainerako lurraldeek ere indarrean izan zuten beren zuzenbide publiko propioa. Sistema horrek 1834ra arte iraun zuen, ahalik eta Espainiak deuseztatu zuen arte. Hortik aurrera, 1978ko Espainiako Konstituzioak aldarrikatu zuen Autonomien Estatuan Botere Judizial bakarria inposatu zen. Hala ere, Justizia Administrazioari dagokionez, autonomia-estatutu batzuek jasotako subrogazio-klausulak legekotzat jo zituen Konstituzio Auzitegiak eta deszentralizaziorako aukerak zabaldu zituen. Testuinguru horretan sortzen den eraginkortasunik ezak eta errealtate politikoarekiko egokitasun faltak aldaketen beharra mahaigaineratzen dute.

GAKO-HITZAK: Foruak · Botere Judiziala · Justizia Administrazioa · Subrogazio-klausula.

Basque Judicial Branch: what it was, it is and it should be

The dispersal phenomenon of the rules had a big influence in de Basque territories, and, consequently, they wrote *Fueros* (regional laws) in each territory. To applied them the Foral Territories formed their own administration of justice. The The Regional Law of Bizkaia, in 1526, contained a complete judicial organization, but also the other territories had their own public law system. This system existed until 1834, when Spain abolished it. Since then, the Spanish Constitution in 1978 proclaimed the only Judicial Branch in the Autonomies State. However, regarding the administration of justice, the subrogation clause that contained some Statutes of Autonomy where considered legal by the Constitutional Court, opening descentralization options. In that situation, the lack of efficiency and the lack of adecuation to the political context creates the need for changes.

KEY WORDS: *Fueros* (regional laws) · Judicial Branch · Justice administration · Subrogation clause

<https://doi.org/10.26876/uztaro.105.2018.4>

Jasotze data: 2017-12-29

Onartze data: 201-02-08

Sarrera

Espanian Botere Judiziala bat eta bakarra da, Botere Legegile eta Exekutiboak, aldiz, anitz, autonomia-erkidego bakoitzeko bat. Hori izan zen 1978an Autonomien Estatuaren aldeko hautua egin zenean, urte bereko Espainiako Konstituzioak utzi zuen ondorioetako bat. Lanaren dinamika kronologikoak erakutsiko digu atzoko eta gaurko Botere Judizial eta Justizia Administrazioaren antolaketak zer eman zuen eta ematen duen; horrez gain, etorkizuneko agertoki ezberdinak irudikatuko ditugu, proposamen zehatzak mahai gainean jarri. Izan ere, ikusiko dugunez, euskal lurraldeen izaera forudunak berezitasunak ekarri zituen arlo honetan ere, eta, gaur egun, eraginkortasunik ezak eta egokitzapen politiko faltatik eratorritako arazoek konponbideak bilatzera behartzen gaituzte.

Beraz, ordena kronologikoari jarraituta, foruek euskal lurraldeetan sortu zuten egitura judiziala aztertuko dugu lehenik: euskaldunen berezkoa zen pertsonal jurisdikzionaletik, Erregearen ordezkari eta Gaztelako Erreinuko auzitegiataraino, banan-banan. Ondoren berezko egitura judizialaren abolizioaz hitz egingo dugu, 1978ko Espainiako Konstituziora heldu arte. Arau gorenak, Botere Judizialaren Lege Organikoak eta Konstituzio Auzitegiaren sententziek osatzen duten Botere Judizialaren antolaketaz eta horrek deszentralizaziorako eskaintzen dituen aukerez mintzatuko gara hurrengo. Amaitzeko, aurrez esan bezala, Botere Judizialaren deszentralizaziorako bidean eman litezkeen proposamenak aurkeztuko ditugu.

1. Lurralde forudunen Justizia Administrazioa historian zehar

1.1. Foruak: berezko Justizia Administrazioen oinarria

Goi Erdi Aroan, VIII. eta XII. mendeen artean hain zuzen ere, arauen sakabanaketa gertatu zen lokalismo juridikoa deritzona garatuz, eta garai horretan sortu ziren hirietan foru bezala ezagutzen diren araudiak. Fenomeno hori euskal lurraldeetan ere gertatu zen, eta hainbat testu juridikoren sorrera ekarri zuen¹. Alde batetik, Foru Frankoak zeuden, hiri-gutunak zirenak²: Erregeak edo jauntxoek hiriak birpopulatzeko helburuarekin hiriei aintzatesten zizkieten pribilegioak ziren. Euskal lurraldeetan XI. mendetik aurrera eman ziren Foru Franko edo Foru Labur horiek. Bilbok eta Gasteizek 1063. urtean bere egin zuten Logroñoko Foru Frankoa eta Donostiak 1180. urtetik aurrera aplikatu zuen Lizarrako Foru Frankoa dira gure lurraldean indarrean egondako adierazgarrienak (Orella Unzue, 1982). Beste alde batetik, hiri eta hiribilduei aintzatestitako foru horiek lur lauak (landa-lurrean) tentsioak sortu zituzten desoreka soziojuridikoak zirela-eta. Ondorioz, lur lauoko biztanleak beren ohiturazko zuzenbidea idatziz jasotzen hasi ziren. Euskal lurraldean Bizkaian,

1. Euskal testu juridikoen sorrera aztertzen du: Imaz Zubiaur, L. (2010): «Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko prozedura judizialak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian: kasazioa eta berrikuspena».

2. Gaur egun Espainiako Estua osatzen duten lurraldeetako jatorrizko zuzenbidea aztertzen du, eta, konkretuki lokalismo juridikoaren sorrera: Lalinde Abadía, J. (1983): *Iniciación histórica al Derecho español*, 86.-87. or.

Arabian eta Nafarroan idatzi zuten lehenengoz beren zuzenbide propioa; Gipuzkoak ez zuen inoiz idatzi zuzenbide pribatuari dagokion araurik³.

Bizkaian foru ezberdinak indarrean izan ziren arren, 1526. urtean Foru Berria idatzi eta landa-lurralde guztiek bere egin zuten testu juridikoa. Hiribilduak eta Orduñako Hiria, aldiz, kanpo geratu ziren, Foru Frankoak Gaztelako Zuzenbideak xurgatu baitzituen. Hala ere, azpimarratzekoa da 1630eko Konkordiaren bidez lur lauan aplikagarri zen Foru Berria hiri eta hiribilduetara zabaltzeko aukera eman zela. Arabian 1373. urtean Araiako Forua idatzi zen, eta Gipuzkoan, aurrez aipatu bezala, ez zen inoiz ohiturazko zuzenbidea idatziz jaso, zuzenbide publikoa jaso zuen konpilazioaren salbuespenarekin. Nafarroak 1237. urtean idatzi zuen Foru Zaharra, eta 1418. urtean Nafarroako Foru «Hobetua» erredaktatu zuen. Iparraldeko lurraldeei dagokienez, beren ohiturazko zuzenbidea eta erakundeak mantendu zituzten harik eta 1789. urtean Frantziako Iraultzak ezabatu zituen arte⁴. Beraz, Erdi Aroan, hiri eta hiribilduak daude, alde batetik, eta lur laua, bestetik. Euskal Instituzio Publikoetan lurralde bakoitzeko Batzar Nagusietan batzen ziren bi eremuak, gauza komunei buruz erabakitzeko (Imaz Zubiaur, 2010: 225).

Foruek zuzenbide zibil, administratibo, penal eta prozedurari buruzko arauak jaso zituzten. Horren ondorioz, euskal egitura judicial zein politikoa propioak eratu ziren, eta indarrean egon ziren hainbat mendetan zehar. Aditu askoren esanetan, Gaztelaren inbasioaren aurretik indarrean egondako arauak ziren, eta, ondoren, interes zentralistak babesteko beharrezko egonkortasuna bilatzekotan, gaztelauak euskaldunei emandako pribilegio bihurtu ziren (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1986; Arostegui Sánchez, 1979; Celaya Ibarra, 1994; Llorente, 1806-1808; Portillo Valdés, 1989). Hala ere, *pribilegio* hitza baino areago *berezko eskubide* edo *eskubide historiko* terminoak erabiltzearen aldekoak gara gu, aspalditik existitzen ziren heinean. Doktrinak atera duen ondorioa da euskal lurraldeen foru-sistema gobernu-sistema jakin batean oinarritzen zela: banakakoen eskubideak babesten zituen sistema, zuzenbide zibil propioa zeukana, bere instituzio publikoak zituena, berezko ogasuna... eta guretzat garrantzitsuena: Justizia Administrazio propioa zeukana. XIII.-XVIII. mendeen artean sortu eta trinkotu zen sistema hori⁵. Hori azalduta, gure iritziz, hainbat autorek egiten duten baieztapena baztertzeko moduan gaude: «Euskal Foru Zuzenbidea historikoki izaera integratzailea duen zuzenbidea da» (Lorca Navarrete, 1995: 6). Konstituzioaren eta Konstituzio Auzitegiaren bidez izaera hori eman dio Espainiako Estatuak gaur egun autonomia-erkidegoetan historikoki existitu den zuzenbideari, baina ohituran oinarritua eta autonomoa zen sistema politiko-judicial batetik datorrela ezin uka daiteke.

3. Hala ere, nahiz eta Gipuzkoako zuzenbide foral pribatua ohiturazkoa izan eta idatzi ez, zuzenbide publikoari buruzko konpilazio forala egin zuten 1583an, 1365, 1397 eta 1463ko ordenantzen edukiak jasoz. Ikus: Rubio Porres, C. (1997): *Fueros y constitución, la lucha por el control del poder (País Vasco, 1808-1868)*.

4. Euskal lurraldeen zuzenbide publikoko erakundeen azterketa egiten du Larrazabal Basañezek, Iparraldeko lurraldeak barne direla. Azterketa historiko gehienek batez ere EAE, eta askotan Nafarroa ere, osatzen duten lurraldeetako erakundeak kontuan izan zituzten. Hori dela-eta, euskal lurralde guztien foru eta erakunde publikoen biziraupenaz lan sakonagoa ikusteko: Larrazabal Basañez, S. (2004): *Derecho público de los territorios forales*.

5. Foru-sistema osotasunean jorratzen du, eta, tartean aipatutako gobernu-ezaugarri horiek aztertzen ditu: Celaya Ibarra, A. (1994): *Tradición y Modernidad. De los Fueros a los Estatutos*, 18.-19. or.

Berezko Justizia Administrazioaren arauketa zabalena 1526ko Bizkaiko Foru Berriak garatu zuen⁶, nahiz eta aurretik ere existitzen zen. Gure ustez, Euskal Botere Judiziala artikulatuta zegoelako froga da testu hori. Gainera, nabarmendu behar da euskal lurralde bakoitzak bere antolaketa judiziala izan zuela.

1.2. Euskal Justizia Administrazioa

Nahiz eta hiru lurraldeen egiturak berdinak ez izan, ez ziren beren artean bateraezinak (Monreal Zía, 2001)⁷: Gaztelako Koroaren menpe zeuden hiru lurraldeak, eta, hori dela-eta, Valladolideko Kantzelaritza arduratzen zen azken instantzian, hiru lurraldeetan hasitako prozesu judizialez. Hala ere, Bizkaiaren kasua berezia zen; izan ere, Gaztelako azken instantziako Valladolideko Kantzelaritzan Bizkaiko Sala zeritzona zegoen, Bizkaiko zuzenbidean aditua zen epaile nagusiaren zuzendaritzapean.

Beste ezaugarri komun bat da Erregearen korrejidoreak udal-jurisdikzioan Gaztelako sistema judizialean zuen eskumena ez zuela ematen euskal lurraldeetan. Izan ere, Araban ez zen figura hori ageri, eta Bizkaian eta Gipuzkoan apelazioaz arduratzeko eskuduntza baino ez zuen. Horren ondorio nagusietako bat da udal-jurisdikzioa bertokoek bereganatu zutela.

Aurrekoaz gain, garrantzitsua da aipatzea Gaztelako prozesu judiziala soilik hiri eta hiribilduetan aplikatzen zela. Lur lauan foruek aurreikusten zuten prozesu judizialari jarraitzen zitzaion, Gaztelakoa ordezkoa izanik. Gainera, foru-sistema judiziala finkatu zenean euskal lurraldeek Gaztelako hainbat figura baztertu zituzten, eta arrotzak ziren hainbat jurisdikzio bereziri uko egin zieten (militarrari adibidez).

Euskal lurraldeetan epaile-lanak egiten zituztenek gobernu-funtzioak zituzten. Hala ere, epaile-funtzioa betetzeko letradu batzuen laguntza izaten zuten. Azken horiek ziren, azken finean, lan jurisdikzionala betetzen zutenak.

Esan behar dugu, aurrez aipatu dugun bezala, bigarren auzialdia bere esku izateko ez zutela saiakera berezirik egin euskal lurraldeek. Hala ere, Bizkaian apelazio-tribunala korrejidoreaz gain diputatu nagusiek ere osatzen zuten. Arabak eta Gipuzkoak Gaztelarekiko harreman gehiago zuten bigarren auzialdian.

Ikerketaren puntu honetan, euskal lurraldeen berezko antolaketa judiziala, Justizia Administrazioa edo Botere Judiziala —deitu nahi zaion bezala, gaur ezagutzen dugun errealitate juridiko eta organikotik urruti baitago— indarrean zela frogatzea dugunez helburu, eta horren erakusgarri argiena Bizkaiko 1526ko Foru Berrian aurkitzen denez, hori aztertzeraz joko dugu⁸.

6. Antolaketa judizialaz gain, berme prozesalak, atxilotuaren eskubideak, prozesu motak, errekurtsioak... jasotzen zituen; Ikus: Larrazabal Basañez, S. (2004): *Derecho público de los territorios forales*, 188.-197. or.

7. Gaur egun EAE osatzen duten hiru lurraldeen iraganeko Justizia Administrazioaren azterketa zabala egiten du: Monreal Zia, G. (2001): «La evolución histórica de la Administración de Justicia en los Territorios Vascos Occidentales».

8. Gipuzkoako sistema judizialari buruz: Ayerbe Iribar, M.R. (2000): «La administración de justicia en los territorios vascos», 5.-51. or. Aldiz, Arabakoari dagokionez: Orella Unzué, J.L. (2006): «Las hermandades vascas en el marco de la Santa Hermandad como instrumento de control de delitos e impartición de penas», 106.-111. or.

Lehenik eta behin, argitu behar dugu Bizkaia osoan ez zela berdina epaile eta tribunalen sistema. Hain zuzen ere, Durango, Bizkai «nuklearra», Enkarterri eta Hiribilduak ezberdintzen ziren. Sistema judizial konplexu horretan hainbat ziren gai berdinen gaineko ardura har zezaketen epaileak, hori dela-eta, eskumen-gatazka ugari sortzen ziren. Horrez gain, posible zen epaitegi batean baino gehiagotan errekurtso berdina jartzea, eta, ondorioz, prozesuak luzatu egiten ziren.

Aipagarria da Bizkaia osoan, batez ere Durangon eta Enkarterri⁹, lehenengo udal-istantzia haien esku mantentzeko borrokak izan zirela. Bertoko herritarrak Bizkaiko ohiturazko zuzenbidea ezagutzeko eta aplikatzeko zuen gaitasuna dela-eta, tribunal arrotzak, Estatuak egituratutakoak, alegia, ez zituzten onartzen bizkaitarrek. Horrez gain, kanpora joateak zekartzan gastuez ere kexatzen ziren. Horrek aurrez aipatutako izaera integraztailearen ideia aurkako jarrera erakusten du.

Autonomia eta berezitasun-maila altuaren erakusgarri da Bizkaian epailea eta haren laguntzailea kontrolatzeko arauak ezarri zituztela Foru Berrian. Horri gehitu behar zaio azken auzialdian auziez arduratzeko sala berezi bat zuela Bizkaiak Valladolideko Kantzelaritzan. Epaile nagusia aditua zen Bizkaiko zuzenbidean. Horrez gain, epaile hori zen bizkaitarrei beren lurraldetik kanpo sortzen zitzaizkien arazo zibil eta penalez arduratzeko epaile eskuduna.

Foru Zaharrak lehen arauketa bat egin ondoren, 1526. urteko Foru Berrian antolaketa judizial egonkortu bat aurreikusi zuen. Ikusiko dugunez, Bizkaiko lurraldeko propio ziren epaileek eta Erregeak izendatutakoek jarduten zuten sistema eratu zen, Gaztelako beste lurraldeen aldean guztiz ezberdina zena: Eskumen-eremu zehatzena zuten **burdinolen alkateak**. Izendapenean zehaztutako bailaran burdinolen artean edo langile eta jabeen artean sortzen ziren gatazkak konpontzeko eskumendunak ziren (Imaz Zubiaur, 2010: 235). Autore batzuen iritziz, merioek exekutatu behar zituzten haien ebazpenak (Enríquez Fernández, 1988). Beste batzuen ustez, aldiz, Bizkaiko Epaile Nagusiak (Gómez Rivero, 1986: 442-443).

Ondoren, tokian tokiko **bertako alkateak** ageri zaizkigu. Horiek eskuduntza mugatua zuten, kasuaren zenbatekoaren arabera. Herriaren borondatea irudikatzen zuen kargua zen, udal-korporazioa osatzen zuten herritarrek aukeratzen baitzituzten (Orella Unzué, 2006: 100). Aurrez aipatu dugun Bizkaiko lurraldeen arteko homogeneotasunik ezaren ondorioz, bertako alkateengandik bereizi behar ditugu **Enkarterriko udalbatzetako alkateak** eta **hiribilduetako eta Urduña hiriko alkateak**. Lehenengok kasu penal eta zibilen ardura hartzen zuten Enkarterriko udalbatza batzuetan, eta zibilak soilik eskualdeko beste batzuetan. Bigarrenak lehen auzialdian zibilez zein penalez arduratzen ziren beren eskuduntza-eremuan.

Bost **foru-alkate** zeuden Bizkaian, eta lur lauan kausa zibilen ardura hartzen zuten. Hurbiltasuna eman nahi zitzaion figura horri; izan ere, beharrezkoa zen tokian tokiko biztanlea izatea, bertakoekin harremana izatea. Hiru zeuden Busturi eta Zornotzako merindadean eta bi Arratia, Uribe eta Bediakoan. Nork bere tokian zuen jurisdikzioa, eta haiek emandako ebazpenen gaineko apelazioa korrejidore

9. Enkarterri izandako borrokak zehatz aztertzen ditu: Escarzaga, E. (1927): *Avellaneda y la Junta General de las Encartaciones*, 103.-108. or.

edo tenientearen aurrean aurkeztu behar zuten biztanleek (Imaz Zubiaur, 2010: 235. Orella Unzué: 100).

Nahiz eta epaitzea ez izan haien funtzio nagusia, **korrejidorearen tenienteek** bazuten, korrejidorearen laguntzaileak izateaz gain, epaitzeko aukerarik. Eskumena zuten lehen (neurri txikiagoan) eta bigarren auzialdietan. Garrantzitsuena Gernikako teniente orokorra zen, Bizkai osoan eskumena zuena. **Korrejidorea** Erregearen ordezkaria zen, eta Bizkaiko lur lau osoan zibil eta penalarekiko eskumena zuen apelazioan. Foruan bertan audientziak noiz egin zehazten zen (ordutegiak adibidez). Bulego judizial bat zuen frogak, deklarazioak... jasotzeko. Korrejidoreak emandako ebazpenen gaineko apelazioaren ardura har zezaketen **Bizkaiko bi diputatu nagusiek**; izan ere, zituzten funtzio politikoez gain, juristek lagunduta lan jurisdikzionala ere egiten zuten.

Azkenik, antolaketa judizial foralaren gorengo mailan, Bizkaiko bide jurisdikzionala amaitzen zuen **Bizkaiko Epaille Nagusia** zegoen. Valladolideko Kantzelaritzako Bizkaiko Salako arduraduna zen, eta Bizkaiko zuzenbidean aditua izan behar zuen. Kausa zibil eta penalez arduratzen zen azken auzialdian.

Jurisdikzio-lanak egiten zituzten karguen pertsonal laguntzailea ere egituratuta zegoen Bizkaian. Epaille-funtzioak egiten zituzten karguei laguntzen zieten hiribilduetako funtzionario judizialak ziren **probestuek**, eta bertako sententziak exekutatzeko eta gaizkileen atxiloketak eta kartzelaratzeko aurrera eramateko eskumena zuten. Beste eremu baten jarduten zuten **prestameroek**: Erregeak zituen eskubideak kobratzeko, jasotzeko eta epaitzeko funtzioa zuten. Horrez gain, kartzelen egoera zaindu eta Batzar Nagusietako deia herrietan zabaltzearen arduradunak ziren. Amaitzeko, Bizkaia nuklearreko merindade bakoitzean zeuden **merioak daude**, bana, alegia. Korrejidorearen, teniente korrejidorearen, diputatu nagusien eta foru-alkateen ebazpen judizialak exekutatzeko eskumena zuten.

Aipatutako euskal lurraldeen Justizia Administrazio propioak zailtasunak izan zituen bere biziraupenerako. Izan ere, XIX. mendean zehar, alde batetik, foruen ezaugarrien, eta, bestetik, Gaztelako tribunalen antolaketa berriaren, Koroaren eta konstituzioen¹⁰ printzipio nagusien arteko talkak gertatu ziren, Estatuaren subiranotasuna, botereen banaketa eta jurisdikzio-batasuna mende horretako konstituzio guztietan aldarrikatu zirelako. Hala ere, 1834ra arte absolutismoaren eta liberalismoaren arteko talkak foruzaleei abantaila eman zien, eta konstituzio-testuak zein sistema liberala baztertzeko aukera izan zuten, foruak era horretan mantenduz¹¹. Foruekiko errespetuzko garaia amaitu zen, eta, geroago, 1834an egindako erreformaren bidez¹², Valladolideko Kantzelaritzak desagertu zen, baita Bizkaiko Sala ere berarekin. Horren ondorioz, euskal lurraldeak Burgoseko Audientziaren menpe geratu ziren. Auzitegi Gorena ere urte horretan sortu zen. Aldaketa horiekin bat, lehenengo auzialdirako epaitegiak inposatu ziren, jurisdikziorako udal-eskumenak

10. 1812ko Konstituzioa, 1834ko Errege Estatutua; 1837, 1845, 1856, 1869 eta 1876. urteetako Espainiako Konstituzioak.

11. Espainiako Liberalek boterea hartu eta foruen instituzioen abolizio-prozesuko epealdi ezberdinak aztertzen ditu, eta, konkretuki 1834ko erreformaren aurreko egoera: Irigoras Alberdi, A. (2007): «Eskubide historikoen atarian: Forutasuna eta sistema juridiko liberala XIX. Mendean».

12. 1834ko urtarrilaren 29ko, martxoaren 24ko eta apirilaren 21eko Errege Dekretuak.

desagerraraziz eta korrejidorearen lana ezabatuz. Gutxika-gutxika egin zen aldaketa izan zen, eta, azkenean, gerra karlisten ondoren, euskal lurraldeen sistema judiziala erabat abolitu zen (Imaz Zubiaur, 2010: 241). Sistema judizialaren abolizioa XIX. mendean gertatu bazen ere, foruzaleen eta gobernu liberal moderatuen arteko harremana ona izan zen 1868. urtera arte, eta testu foralak indarrean mantentzea lortu zen, egitura judizial propiorik gabe¹³. Gerra karlisten amaieran sortutako Estatuaren ezegonkortasunak foruak modu erosoan mantentzea ahalbidetu zuen 1875. urtera arte. Hortik aurrera, liberalen eta foruzaleen arteko lehen talka garrantzitsuak gertatu ziren, eta horren ondorio izan ziren 1876ko Espainiako Konstituzioa eta 1876ko uztailaren 1eko Legea, foruen abolizioari buruzkoa (Irigoras Alberdi, 2007: 60). Horren bidez, Canovas del Castelloren eskutik, foru-lurralde sistema eta berezko instituzio publikoak desagertu egin ziren, esparru publikoan¹⁴. Ondoren, 1879an figura berri bat sartu zen indarrean euskal lurraldeetan: kontzertu ekonomikoa. Frankoren diktaduraren garaian Bizkaiak eta Gipuzkoak kontzertu hori galdu zuten, probintzia traidoreak zirela-eta. Zuzenbide pribatuko arauak dagokienez, konpilazioek (1959koa Araban eta Bizkaian, eta 1973koa Nafarroan) foruak ordezkatu zituzten.

Amaitzeko, garrantzitsu deritzogu Espainiako II. Errepublikaren garaiari erreferentzia egitea, Euskal Estatuaren Aurreproiektuak Botere Judizial propioa sortzeko nahia barnebildu zuelako. Izan ere, 1931ko Espainiako Konstituzioa eskuzabalagoa izan zen Justizia Administrazioari dagokionez, Estatuarentzat soilik Auzitegi Gorenari zegokion araudiaren eskusibitatea gordetzen baitzuen 14.11. artikuluan¹⁵. Gauzak horrela, Eusko Ikaskuntzak 1931. urtean onartu zuen aurreproiektuan, Nafarroa ere parte zela, Euskal Botere Judizialaren sorrera aurreikusi, eta hurrengo antolaketa judiziala proposatu zuen:

- Auzo-epaitegiak desagertzea.
- Lehenengo auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak aldatzea.
- Bilbon (berria sortuz) eta Iruñean (mantenduz) lurralde-audientziak ezartzea.
- Probintzia-azitegiak mantentzea.
- Euskal Auzitegi Gorena sortzea. Hiru saladun (zibila, administratiboa eta lan-arlokoa) auzitegia aurreikusten zen, eta haren eskumena zen kasazio-helegiteaz arduratzea. Beraz, auzitegia sortzearekin batera, kasazio-helegite propioaren figura ere barneratu zen estatutuan.
- Euskal Kidego Judizialeko kideak Euskal Auzitegi Gorenak aukeratzea.

13. Garaiko Espainiako erregimen liberala eta horrek foruetan izan zuen eraginaz: Pérez Núñez, J. (1996): *La Diputación Foral de Vizcaya. El régimen foral en la construcción del Estado liberal (1808–1868)*.

14. Gerra karlistek sortutako egonkortasunaren ondoren etorri zen liberalen euskal lurraldeenganako deskonfiantza eta foruen aurkako jarrera aztergai: Angulo y de la Hormaza, J.M. (1976): *La abolición de los fueros e instituciones vascongadas*; Castells Arteché, L. (2003): «La abolición de los Fueros vascos».

15. 1931ko eta 1978ko Espainiako Konstituzioen arteko ezberdintasunez eta horiek Euskal Estatuaren izan zuten eraginaz irakurtzeko: Celaya Ibarra, A. (1988): «El poder judicial y los estatutos de Autonomía», 184. or.

Azkenean, Lizarrako Estatutua egin zuten, aurreproiektuari aldaketa batzuk eginez. Hala ere, sistema judizialari dagokionez, bere horretan utzi zuten aurreproiektuan jasotzen zena. Zoritxarrez, 1931ko Konstituzioaren aginduz Euskal Estatutua lau diputazioetako batzorde kudeatzaileek egin behar zuten, eta batzorde horietako kideak Espainiako Gobernuak aukeratzen zituen. Beraz, horiek testua sortzeko lanean jarri ziren, Nafarroa kanpo utzita¹⁶. 1933. urtean onartu zen estatutua erreferendum bidez; hala ere, bi aste beranduago eskuinak hauteskunde orokorrak irabazi eta estatutua bertan behera geratu zen. Noski, onartu eta ondoren bertan behera geratu zen estatuak Euskal Botere Judiziala sortzeko ideia deuseztatu zuen lege-testu horren bidez, nahiz eta Euskadiko Auzitegi Nagusia sortzeari eutsi zion, baina soilik bertako araudiarekin lotutako kasazio-helegiteez arduratzeko. Azkenik, 1936an onartu zen estatutua Gorte Nagusietan, Botere Judizialari erreferentziarik egin gabe, eta jatorrizko 54 artikulua 14tan geratuz (Celaya Ibarra, 1988: 184). Urte horretan bertan, Gerra Zibila gertatzen ari zela, lehenengo Euskal Gobernu autonomikoa sortu zen, Agirrek zuzenduta. Gero, gerra-garaiak sortu zuen inguruabarra dela-eta, Agirrerren gobernuak hainbat kompetentzia eskuratu zituen, ia-ia estatu-moduan funtzionatzearaino. Tartean, 1937ko urtarrilaren 8ko dekretuaren bidez, egitura judizial berria antolatu zen¹⁷. Halabaina, Frankok 1937an estatutua deuseztatu, eta Euskal Gobernuak erbestera jo zuen. Egoera horretan iritsi ziren euskal lurraldeak 1978ko Konstituzioa onartu zen garaira.

1.3. Botere Judizialaren egungo egitura konstituzionala

Espainiako Estatuak, trantsizioaren ondoren, Autonomien Estatuaren alde egin zuen egun indarrean dagoen 1978ko Konstituzioan: arau gorenaren 2. artikuluan ezartzen da naziokotasun eta eskualde ezberdinen autonomia errespetatuko dela, lurralde-antolaketa udalerrri, probintzia eta autonomia-erkidegoek osatzen dutela, eta horiek beren interesen alde jarduteko autonomia dutela adierazten da 137. artikuluan.

Hala ere, gure ustez, erraz ikusten da Espainiako hiru botereek ez dutela proiektzio berdina izan Autonomien Estatuari moldatzeari begira, eta Botere Judizialaren kasuan argia da ez dela Estatuaren egitura berrian txertatu. Izan ere, Botere Exekutiboak eta Legegilea, neurri ezberdinean bada ere, autonomia-erkidegoetan egituratu dira, baina Botere Judizialak konstituzioaren aurreko eskemarekin jarraitzen du; hots, batasun jurisdikzionalaren aldarrikapenarekin (Biurrun Mancisidor, 2005: 82). Printzipio horren oinarri dira EKren 117.5, 149.1.5 eta 122.2. artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 3.1. artikulua. Erabat piramidala eta hierarkikoa den epai-ereduaren alde egin du legelariak (López Guerra, 2003: 84).

Aipatutako lehenengo artikulua, EKren 117.5. artikulua, auzitegien antolaketarako oinarrizko printzipio gisa ezartzen du batasun jurisdikzionala. Horrek ekarri beharko luke, printzipioz, Botere Judizialaren gobernuaren batasuna, epaile

16. Nafarroako eskuindarren inizatiba politikoak lortu zuen Euskal Autonomia Estatuaren proiektutik ateratzea.

17. Gerra Zibilaren garaian Euskal Gobernuak lortu zuen autonomiaz mintzo da Castells Arceche, J.M. (2013): «La aplicación del estatuto de octubre de 1936: la acción institucionalizadora del Gobierno Vasco», 501. or.

eta magistratuak kidego bakarrekokoak izatea eta Auzitegi Gorenak jurisdikzioa agortzea¹⁸. Antolaketa horri guztiari dagokiona arautzeko Lege Erreserba bat egiten du Konstituzioak 122.1. artikuluan BJLOren alde. Aurrez, EKren 117.3. artikuluan epaitegi eta tribunalei esleitzen zaie epaitzeko funtzioa, eta hori legeak ezarritako prozeduraren eta eskumen-arauen arabera egin beharko dutela zehazten da. Horrekin lotuta, epaitzeko funtzioaren batasuna bermatzeko, Estatuarentzat erreserbatzen du EKren 149.1.6. artikulua arau prozesalak emateko eskumena, berezko zuzenbide bereziak dituzten autonomia-erkidegoen kasuak salbuetsita. Horrez gain, EKren 149.1.5. artikulua Estatuarentzat gordetzen du Justizia Administrazioaren eskumen eksklusiboa. Azkenik, Botere Judizialaren Kontseilu Organoa Botere Judizialaren gobernu-organo bakar izendatzen dute EKren 122.2. eta BJLOren 3.1. artikuluek. Aurrera egin ahala aztertuko dira sakonago horien edukiek Autonomien Estatuan justiziaren deszentralizaziorako ezartzen dituzten mugak. Baina, aurreratu dezakegu, Konstituzioak ezarri bezala garatu zen 1985eko Botere Judizialaren Lege Organikoak eredu zentralista indartu baino ez zuela egin (Aparicio Pérez, 1992: 163). Azken finean, Espainiako Estatuak Botere Judizialaren ikuspegi tradizional eta zentralistaren alde egin zuen (Porras Ramírez, 2013: 109), eta, gure iritziz ere, aukeratutako estatu-antolaketa-ereduekin guztiz kontrajarria den erabaki bat hartu zen, Botere Judizialaren deszentralizazioari trabak jarriz (López Guerra, 2003: 84).

Esan dugunez, batasun jurisdikzionala epaitzeko funtzioaz haratago doa Espainiako araudiaren arabera; izan ere, Botere Judizialaren gobernu-organo bakarra ezartzen du BJLOk 104. artikuluan, Espainiako lurralde guztian funtzioak egikaritzeko dituen: Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra. Independentzia- eta mugiezintasun-printzipioek gidatzen dute epaile eta magistratuen jarduna. Independentzia hori soilik legearen menpe egoteak bermatzen du (Sala Sanchez, 2003: 227), eta, ondorioz, Botere Judizialaren gobernu-organoa momentu jurisdikzionaletik at kokatu behar da¹⁹. Hala ere, gobernu-organoak berak ere izan behar duen independentzia-printzipioaren bermea zalantzan jartzen da, Kontseiluko kideen aukeraketak duen izaera politikoagatik²⁰: 4/2013 Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra erreformatzeko Lege Organikoaren²¹ 566. eta 567. artikuluetan ezartzen da bere osaketan parte hartzen duten 20 bokalak Gorte Nagusiek aukeratuak izango direla, hiru bosteneko gehiengoz. Horiez gain, Auzitegi Goreneko presidentea ere izango da Kontseiluko kide.

Laburtzeko, Espainian Konstituzioak eta BJLOk batasun jurisdikzional zatiezina aldarrikatzen dute²², eta autonomia-erkidegoetan justizia estatala ezartzen da (funtzio jurisdikzional hertsiarri, administrazioari zein gobernu-funtzioari dagokienez),

18. EK-k agintzen duen batasun jurisdikzionalaren azalpen sakonagoaz, ikus Borrell Mestre, J. (2005): «Justicia y Comunidades Autónomas», 139.-140. or.

19. «El gobierno de los jueces tiene que ser rigurosamente exterior al momento jurisdiccional»: Andres Ibañez, P eta Movilla Álvarez, C. (1986): *El Poder Judicial*, 66. or.

20. BJKOko izendapenen inguruko kritikak azaleratzen ditu: Terol Becerra, M.J. (2012): *Reivindicación autonómica sobre el gobierno desconcentrado del Poder Judicial*, 13. eta 21. or., batez ere.

21. Ekainaren 28ko 4/2013 Legea, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren erreformari buruzkoa, 6/1985 Botere Judizialeko Lege Organikoa aldatzen duena.

22. Espainiako Botere Judizialaren eredu sakonago aztertzeko, Ikus: Diez Picazo, LM. (1991): *Regimen constitucional del Poder Judicial*, 87. eta hurrengo or.; Delgado del Rincon, L.E. (2002): *Constitución, Poder Judicial y responsabilidad*.

tokian tokiko Botere Judizialak sortzeari bidea itxiz²³. Badirudi, lehen begirada batean behintzat, oinarrizko araudiari erreparatuta autonomia-erkidegoek ez dutela Justizia Administrazioan ahalmen exekutatzailerik ez normatiborik (Pérez-Cruz Martín, 2012: 2).

Interesgarria da konturatzeko Espainiako 1978ko Konstituzioan Botere Judiziala dela «Botere» hitzez definitzen den hiruretako bakarra. Kontzeptualizazio hutsez ari garen arren, gure ustez ez da kasualitatea izendapen hori. Azaldu dugunez, Botere Exekutiboak eta Legegileak jasan dute nolabaiteko deszentralizazio bat, Botere Judizialarekin gertatu ez den bezala. Batasun juridikionala bermatzeko helburuarekin erabiltzen da «Botere» terminoa, interpretazioari leku gutxiago uzten dion hitz indartsua delako. Beste aukera «justizia-administrazio» izendapena erabiltzea litzateke, eta, ikusiko dugunez, interpretaziorako tarte zabala eskaintzen die erkidegoetako legegari eta juristei.

Egoera zurrun honek, nahiz eta ondoren ikusiko dugun bezala, aldaketa gutxi batzuk jasan dituen, ez die Autonomien Estatuaren antolaketari eta lurralde batzuen beharriari erantzuten, eta, horren ondorioz, erkidego batzuek Botere Judizial propiorako edo Justizia Administrazioan eskumenak lortzeko saiakerak egin dituzte. Estatuaren gaurko antolaketaren aurkako ideologia eta mugimendu politikoak federalismotik independentismoraino doaz, eta, beraz, oraindik ez da 1978an hasitako Estatuaren egituraketa-prozesua amaitu²⁴; gainera, aldi berean, Estatuaren egituraketara moldatzen ez diren neurri zentralistak ere geratzen eta indartsuagoak dira. Gure ustez, Espainiako araudiaren analisi laburrak ikusarazten du Botere Judiziala ez dela errealitate politiko, sozial eta juridikora moldatzen, eta ondorengo lerroetan saiaturiko gara hori gutzia azalera ateratzen.

2. Botere Judizialaren deszentralizazioa gaur egun

2.1. Justizia Administrazioa Autonomien Estatu deszentralizatuan

2.1.1. Baliabide pertsonal eta materialen eskumenak

Espainiako 1978ko Konstituzioak Autonomien Estatuaren ereduaren alde egin ondoren, Euskal Autonomia Estatutua 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartu zen, aurrez, urriaren 25ean erreferendum bidez herritarren babesa jaso ondoren²⁵.

Bigarren tituluan arautzen dira Euskadiko Botereak (*Aginte* bezala izendatuak testuan). Hain zuzen ere, 34. eta 36. artikuluen artean arautzen da Justizia Administrazioa. Lehenengo, 34.1. artikuluan Botere Judizialaren Lege Organikoak

23. Botere Judizial Autonomikoen sorrerak EKren aldaketa behar du («*todo puede ocurrir, pero, si así sucede, se impone modificar la vigente constitución*»), ikus: Lorca Navarrete, A.M. (2009): *Poder Judicial ¿Garantía de la potestad jurisdiccional constitucional? ¿No invocar el Poder Judicial en vano!*, 34. or.

24. Autonomia-erkidegoen izaera eta beharriaren politiko eta administratibo ezberdinak aldarrikatzen ditu: Aparicio Pérez, M.A. (1992): «El Poder Judicial», 164. or.

25. Hala ere, kontutan izan behar dugu % 41,16ko abstentzioa egon zela erreferendumean. E-mailzak sakonago aztertzeko: del Castillo Vera, P. (1980): «Referendum del Estatuto de Autonomía en el País Vasco».

ezartzen duen antolaketari men egiten dio, eta Justizia Auzitegi Nagusiaren (JAN aurrerantzean) sorreraz ari da, lurralde osoan eskumena izango duena, eta auzialdi guztiak agortuko dituena. Horrez gain, Espainiako Konstituzioaren 152. artikuluari erreferentzia eginez, epai-barruti eta egoitza-hiriak ezartzean parte hartzeko eta mugak finkatzeko eskumena aurreikusten du. Ondoren, 35.1. artikuluan epaile eta magistratuen estatutu juridikoari heltzen dio labor-labor. Bertan xedatzen du epaile, magistratu eta letratuak BJLOk agindu bezala izendatuko direla, Euskal Foru Zuzenbidea eta euskara jakitea meritu bezala baloratuz. Aldiz, 35.2. artikuluan ezartzen da, behin EAEk eskatuta, dagokion organo eskudunak epaile-eta magistratu-postuak betetzeko lehiaketak deitu beharko dituela, eta, jarraian, gehitzen da oposaketa horietan bete gabe geratzen diren lanpostuak Euskadiko Auzitegi Nagusiak beteko dituela BJLOn ezartzen denari jarraituz. Estatutuak 35.3. artikuluan erkidegoarentzat gordetzen du Justizia Administrazioaren baliabide material eta ekonomikoak hornitu eta kudeatzeko ardura, eta, azkenik, 35.4. artikuluan, EAEren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzak bultzatzeko beharra jasotzen du, eskuratutako eskumenak era egokian kudeatzeko.

Horrenbestez, hertsiki Justizia Administrazioari dagokion atalean eskumen autonomikoei egiten zaien erreferentzia urria da. Hala ere, Justizia Administrazioaren eremuan autonomia-erkidegoek konpetentziak hartu izanaren eta gaurko egoera konplexu, kontraesankor zein labirintokoaren sorrera ekarri duen xedapena Estatutuaren 13. artikuluan aurki dezakegu. Horren arabera, EAEk garatuko ditu BJLOk Justizia Administrazioaren gaian (jurisdikzio militarra alde batera utzita) Estatuko Gobernuari aintzatesten dizkion ahalmenak. Subrogazio-klausula deritzon erreserbaren aurrean gaude. Artikulu horrek, BJLOk gobernuari esleitzen dionez Justizia Administrazioa kudeatzeko ahalmena, Espainiako Konstituzioaren 149.1.5. artikuluan Estatuaren alde ezartzen den eskumen eksklusiboaren gainetik igartzeko aukera ematen du, EAEren eskumenen mesedetan. Autore batzuek segurtasun juridikoaren aurkakotzat jotzen dute (Aguir de Luque, 2005: 32), baina guk argi daukagu errealitate politikoak eta juridikoak daukaten talkatik ondorioztatzen den xedapena dela. Hala ere, lehen begirada batean muga handiak dituen formula bat da. Izan ere, Botere Judizialaren gobernu BJKOren esku dago EKren 122. artikuluen arabera, eta, betiere, BJLOk gobernuari esleituko dizkion funtzioak oso hondarrekoak izango dira (Celaya Ibarra, 1988: 189). Hori horrela izanda ere, ezin uka dezakegu subrogazio-klausulen aurka aurkeztu zen konstituzioaren aurkako errekursoaren ondorioz emandako sententziak mugarriz garrantzitsu bat ezarri zuela aztergai dugun gai honetan.

Konstituzio Auzitegiaren 1990eko martxoaren 29ko epaiak²⁶ aipatutako subrogazio-klausulen legezkotasuna onartu eta jurisprudentzia sortu zuen. Auzitegiak bidea zabaldu zuen autonomia-erkidegoek (AE) eskumen jurisdikzionalaren egikaritzea eragiten ez duten konpetentziak klausula horren bidez bereganatzeko. Horretarako, aurrez Italian egin zen bezala²⁷, *justizia-administrazioa* eta *justiziaren administrazioaren administrazioa* bereizi zituzten magistratuek. Lehenengoaren barruan sartzen dira funtzio jurisdikzional hertsia eta jardun horretan bermatu

26. STC 56/1990.

27. Italiako Botere Judizialari buruz: Rigano, F. (1982): *Costituzione e potere giudiziario*.

beharreko independentziarekin lotutako funtzioak, eta, bigarrenean, berriz, aurrekoei laguntzera bideratzen diren baliabide pertsonal eta materialak²⁸. Azken horretan egongo lirateke epaile, magistratu, eta, neurri handi batean, idazkari judizialen gaineko eskumenak ez diren beste guztiak²⁹; hau da, ekintza jurisdikzionala burutzen ez duen pertsonalarekin eta baliabide materialekin lotutakoak. Hala ere, ez da eskumen oso bat aintzatesten AE-en alde, 8. zuzenbide-oinarrian zenbait muga ezarri baitziren: alde batetik, aipatu dugunez, ezin dituzte orokorrean Justizia Administrazioari dagozkion eskumen guztiak bereganatu (lan jurisdikzionalari laguntzen diotenak soilik); bestetik, BJLOk Gobernua ez den beste organo batentzat erreserbatutako funtzioak ezin ditzakete eskuratu, eta, azkenik, ezingo dira sartu ezta autonomia-estatutuen aplikazio-eremua gainditzen duten gobernu-funtzio suprakomunitarioetan ere³⁰. Gainera, sententziaren arabera, AE-ek baliabide pertsonalen gaineko ahalmenak lortuta ere, 1985eko BJLOk ezartzen zuen kidego nazional bakarraren irizpidea errespetatu behar zen³¹.

Aipatutako sententziaren 5. zuzenbide-oinarrian Auzitegiak onartzen du bloke konstituzionalari koherentzia emateko eta Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen arteko kontraesanak gainditzeko hartutako erabakia dela. Beraz, esan dezakegu Konstituzio Auzitegiaren interpretazioek lagunduta eskuratu dituztela AE-ek dituzten eskumen murrizak (Cabellos Espiérrez, 2004: 78), eta oso interesgarria da horren gainean hurrengo hausnarketa egitea: ez dago Konstituzioan xedapenik Justizia Administrazioari dagokionez AE-ek kompetentziak eskura ditzaten baimentzen duenik. Are gehiago, erkidegoek soilik eskura ditzakete Konstituzioak Estatuarentzat gorde ez dituen ahalmenak 149.3. artikulua arabera, eta, konkretuki, Justizia Administrazioa Estatuaren kompetentzia eskusibotzat jotzen du EKren 149.1.5. artikulua, inolako bereizketa kontzeptualik egin gabe. Gainera, legegile estatalari dagokio eskumen horiek banatzea, eta ez autonomia-estatutuei³². Beraz, argi eta garbi, sententzia horrek EK-k eta BJLOk ezartzen dutenaren aurka egin zuen, interpretazio bidez lege horien edukia ginetik igartzeko. Gauzak horrela, KAren 56/1990 epaiak agindutakoa barnebildu zen BJLO aldatzen zuen 1994ko azaroaren 8ko Lege Organikoan³³: testuaren 455. artikuluan jasotzen zen posible zutela AE-ek Justizia Administrazioako pertsonalaren gaineko eskumenak bere gain hartzea, baldin eta subrogazio-klausula aurreikusten bazuten estatutuan. Eskumenen transferentzia hori dekretu bidez ematen da, eta, beraz, erabaki guztiz politiko baten aurrean gaude, unean uneko gobernuaren esku dagoen araua izanik. Hala ere, artikulua horrek esandakoa betez, zenbait erkidegok kompetentziak eskuratu zituzten (EAEk martxoaren 15eko 514/1996 Errege Dekretuaren bidez), eta Justizia

28. KAren epaia eta horien ondorioak zehatz laburtzen ditu: Borrell Mestre, J. (2005): «Justicia y Comunidades Autónomas», 141. or.

29. AE-ek dituzten Justizia Administrazioako eskumenei buruz: Martín Contreras, L. (2005): «Poder Judicial y Autonomías».

30. STC 56/1990, 8. ZO.

31. Sententziaren eta horrek subrogazio-klausuletan izandako azterketa: Saiz Garitaonandia, A. (2009): *La administración de justicia en las comunidades autónomas: situación actual y perspectivas de reforma*, 162. or.

32. Hausnarketa horren analisi eta iritzia ematen du: Balaguer Callejón, F. (2004): «Poder Judicial y Comunidades Autónomas», 60. or.

33. 16/1994 LO.

Administrazioko eskumenen mapa are konplexuago bihurtu zen, koordinazio-arazoak sortuz (Saiz Garitaonaindia, 2009: 167).

Sententzia horrek sortu zuen egoera dela-eta, Justizia Administrazioaren eredia krisi batean sartu zela esan dezakegu, eta koordinazio-akatsak zein autonomiekiko hurbiltasun faltak hainbat proposamenen garapena ekarri zuen: adibidez, Auzitegi Gorenaren 2000. urteko txostena, eta, batez ere, BJKOren 1997ko Liburu Zuria eta 1999. urteko txostena³⁴. Gure ustez, estatu-ereduarekiko egokitasun faltaz gain, eraginkortasunari oztopoa jartzen zion arazoa argia zen: eskumenen banaketak hainbat organo eskumendun jarri zituen mapan. Hala ere, 2003. urtean BJLO aldatzeko Justizia Ministerioaren Estatuko Paktua izan zen oinarri, eta, gero ikusiko dugunez, deszentralizatorako proposatutako pausoak ez zituen kontuan hartu. BJKOk idatzi zuen *Liburu Zuriak*, bulego judizialari eskaintzen zion atalean, proposatzen zuen kidego ez jurisdikzionalaren (idazkari judizialak kenduta) eskumen guztiak erkidegoetara transferitzea (*Libro Blanco de la Justicia*, 1997: 109-141), baliabide pertsonal eta materialen antolaketa konplexuegizat eta nahasmentzat jotzen zuelako, eta horrek eraginkortasun falta eta atzerapen handiak zekartzalako (*Libro Blanco de la Justicia*, 1997: 316-317). Hala ere, aurreratu dugun moduan, hurrengo lege-aldaketa bultzatu zuen testua Justizia Ministerioaren Estatuko Paktua izan zen, ondorengo urteetan hainbat lege eta aldaketari bide eman ziena, 2003ko BJLOren aldaketa izanik puntu garrantzitsuena. Paktu horrek bulego judiziala eta bertan parte hartzen zuen pertsonalaren antolaketa berri eta sinplifikatua aurkeztu zuen, horiek kidego nazionalen barneratuz, nahiz eta testuan bertan azpimarratzen zen AE-en eskumenak orain artekoak baino gehiago izango zirela pertsonalaren gestioan³⁵. Beraz, labur eta gordin esanda, Botere Judizialaren gobernu den BJKOk deszentralizazioaren beharrezana ikusten zuen bitartean, ekimen legegilea babestuko zuten bi alderdi nagusiek (PP, PSOE) proposamen horiei ateak itxi eta Justizia Administrazioa estatu-eredura egokitzeko prozesua ezerezean utzi zuten.

Paktu horren ondorio izan zen BJLO aldatzen zuen 2003ko abenduaren 23ko Botere Judizialaren Lege Organikoa³⁶. Aurrerapen moduan, esan behar dugu lege horrek ikuspegi zentralista indartu zuela, kidego nazionalaren printzipioa zabalduz eta AE-ei eskumen puntual batzuk soilik emanez³⁷. Lege berriak bulego judizialaren antolaketa berria proposatu zuen³⁸, eta organismo horretako lanpostuak Justizia Administrazioko funtzionarioek soilik beteko zituztela adierazi. Bi funtzi ezberdinu ditzakegu bulegoaren baitan: alde batetik, Laguntza Zuzenerako Unitate Prozesalak daude. Horiek, aurreko idazkaritza judizialen ondorengoak dira. Ministerioak du horren gaineko eskumena, BJKOren eta eskumenak bereganatuta dituzten AE-en

34. Dokumentu horiek BJren Gobernu, Bulego Judizial, Justizia Administrazio eta hizkuntzei buruz jasotzen dutena aztertzeko ikus: Cabellos Espiérrez, M.A. (2004): *La adecuación del Poder Judicial al modelo de Estado*, 82. or.

35. Pacto de Estado para la Reforma de la Justicia, 10, 11 eta 12. puntuak.

36. 19/2003 Lege Organikoa

37. Letratuak Justizia Administrazioko beste kidego batean barneratzen ditu, eta AE-ei egiten zaien erremisioa erresiduala da; ikus: Aparicio Perez, M.A. (2003): «La difícil relación entre la organización del Poder Judicial y el Estado Autonómico», 100. or.

38. Bulego Judizialari buruz ikus: Carretero Gonzalez, C. (2004): «Estructura y funcionamiento de la Oficina Judicial»; Dorado Picón, A. (2004): «El Secretario Judicial y la Oficina Judicial tras la reforma de la Ley Orgánica del Poder Judicial».

garrantzi gutxiko funtzioaren bat kenduta. Beste alde batetik, Zerbitzu Prozesal Arrunta osatzen duten funtzionarioak daude, arau prozesalen aplikazioan laguntzen dutenak, hain zuzen ere. Bulego Judizialaren lana idazkari judizialak zuzentzen du, eta Ministerioa edo eskumenak bereganatutako AEak dira eskumendunak, nahiz eta BJKOk printzipio zuzentzaileak ezar ditzakeen.

Aldiz, Bulego Judizialek at kokatu zituen legeak Unitate Administratiboak eta idazkari judizialak. Lehenengoek baliabide pertsonal eta materialak antolatzen dituzte, eta Justizia Administrazioiko edo AE-etako funtzionarioak izan daitezke. Bigarrenen kasuan kidego berri baten sorreraren alde egin zuen legegileak: izaera nazionalako kidego gorena osatzen dute gaur egun idazkariak. AE-ek idazkariaren gain daukaten eskumen bakarra JANeko idazkariaren aukeraketan parte hartzeko eskubidea da. Gainera, idazkari judizialen parte-hartze prozesala indartzea ere ekarri du erreforma honek; izan ere, exekuzioan eta borondatezko jurisdikzioan handitu egin dira haien eskumenak, Bulego Judizialeko zuzendari izateaz gain. Beraz, eskumen prozesalak gehitzeak kidego nazionalan integratzeari zentzua ematen badio ere, aldi berean Bulego Judizialaren zuzendari izateak AE-ekin guztiz harremanetan jartzen du (Cabellos Espiérrez, 2004: 94), berriro ere eskumen eta errealtate territorialen nahasketa bat gertatzen delarik. Aurrekoaz gain, Auzitegi Medikuntzako Institutua (479.4. art.) zein Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutua (BJLO 480. art.) Estatuaren kompetentzien barne kokatu ziren. Azkenik, aipatzekoa da funtzionarioen lehiaketa-prozesuetan Ministerioa izango dela eskuduna, nahiz eta AE-ek aukera duten bertako zuzenbide zibil foralaren edo hizkuntza koofizialaren gaineko frogak jartzeko, nahiz eta ez den baztertzaila izango.

Justizia Administrazioaren inguruko eskumen labirintoa konpontzeko beste erreforma orokorrik ez da egin 2003. urtetik gaur arte, eta, beraz, azaldutakoa da gaur egun Estatuaren eta AE-en arteko eskumen-gatazkaren egoera. Baliabide pertsonaletan Estatuak ditu kompetentzia gehienak, eta AE-ek baliabide materialen gestioan parte hartzen dute gehienbat. Azaldutakoak Estatuaren eskumen-banatze dualistaz gain (BJKO/Ministerioa), AE-en subjektua ere jarri du mahai gainean, nahasmena areagotuz (Xiol Rios, 2005: 71).

2.1.2. JAN jurisdikzioa agortzen duen organo bezala

JANen existentzia eta sorrera Espainiako Konstituzioaren 152.1. artikuluan aurreikusten da. Bertan, autonomia-erkidegoko azken instantziako auzitegitzat jotzen da. Horrez gain, betiere BJLOren xedapenak eta jurisdikzio-batasuna errespetatuz, AE-ei aukera zabaltzen zaie barruti judizialen antolaketan parte hartzeko. EK-k esandakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko JAN Estatu-tuko 34. artikuluan sortzen da, eta erkidegoko instantzia prozesal guztiak bertan agortzen direla xedatzen da³⁹. Hala ere, BJLOk aurreikusten duen eran antolatuko da. Jarraian, galdera beharrezkoa da: JAN autonomia-erkidegoko organoa da? Horretaz goiz erabakitzeko aukera izan zuen KAK 25/1981 eta 38/1982 sententzien bidez, eta argi adierazi zuen ezetz⁴⁰, AE-etan kokatzen den Botere Judizial

39. 34.1. artikulua.

40. Espainiako JANEi buruzko izaera juridikoaz: Calderon Cuadrado, M.P. (1997): «El Tribunal Superior de Justicia», 145. or.

bakarraren menpeko organoa dela; izan ere, ez da EKn Botere Judizialek kanpo kokatzen⁴¹.

Hala ere, EK-k ez dio JANen eskumenari aipamenik egiten, eta, ondorioz, ezta kasazio-errekurtso autonomikoari ere. Horretarako, BJLOra jo behar dugu; konkretuki, BJLOren 73. artikulura. Bertan arautzen dira JANek arlo zibilean dituzten eskumenak, eta, tartean dago, noski, kasazio-errekurtsoa. Artikulu horrek Zuzenbide Zibil Foral edo berezia duten erkidegoetako JANEi ematen die eskumena, eta estatutueta egiten du erremisioa, baldintza izanik horietan eskuduntza hori aurreikustea nork bere auzitegiarentzat. JANek arlo zibilean dituzten eskumenak zerrendatzen ditu artikulua, eta, horren arabera, kasazio- eta berrikuste-helegiteez arduratzeko ahalmena du auzitegiak, baldin eta aurrez aipatutako baldintzak betetzen baditu. Horrez gain, arbitrajearen gaineko kontrola eta atzerriko laudoen *exequatur* eskaerez arduratzeko eskumena aintzatesten zaio auzitegiari. Gainera, instantzia bakarrean hurrengo gaiez arduratuko da: erantzukizun zibilari buruz, baldin eta prozesu horiek Gobernu Autonomikoko presidente, Gobernu Kontseiluko edo Ganbera Legegileko kideen aurka bideratzen badira; baita Audientzia Probintzietako magistratuek beren funtzioak egikaritzean sortutako erantzukizun zibilari buruz ere, eta, azkenik, erkidegoko organo jurisdikzionalen arteko eskumen-gatazkei buruz, baldin eta horiek ez badute komuna zaien beste goragoko epaitegi edo auzitegirik. Aipatzekoa da Prozedura Zibileko Legearen 468. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten dela JANak urrapen prozesalagatiko errekurtso bereziaz arduratu ahal izango direla. Hala ere, xedapen hori errealitate bihurtzeko eskumenen transferentzia ahalbidetuko duen dekretua emango zain gaude, gaur-gaurkoz oraindik aurrera eraman ez dena.

Gauzak horrela, auzitegien eraginkortasunari dagokionez, arazo bikoitz baten aurrean agertzen gara: alde batetik, EAeko JANen ebazpen kopuruak urriak dira (1990etik 2015era 64 ebazpen baino ez⁴²), eta, bestetik, Espainiako Auzitegi Gorenak daukan lan-karga handiak lan-metaketa handia sortu du (López Guerra 2003: 105). Beraz, datuek azaltzen duten bezala, organo bien jardueraren desoreka handia da, eta horrek herritarrek duten administrazio onerako eskubidea urratzen du.

Irakurritakoarekin bat, kontuan hartzekoa da euskal JANen kasua berezia dela, kasazio foralaz arduratzeko eskumena daukalako. Horretan oinarritzen gara JAN eta EAeren arteko harremana organikoa dela arrazoitzeko, eta ez lurraldekoa, KAK 1981. urtean zehaztu zuen bezala⁴³, berezko eskumenak dituelako, iraganeko eskubideetan oinarritutakoak. Hori horrela izanda, paradoxa bat sortzen da Auzitegi Autonomikoaren eskumenak eta izaera aztertzean; izan ere, nahiz eta ez den EAeko organoa, bertako jurisdikzioa agortu eta kasazio foralaz arduratzeko aukera esleitzen zaio, baina, aldiz, kasazio arrunta arautzean PZLn AGri arau estatalaz eta komunitarioaz arduratzeko, eta ez autonomikoaz, eskumena ematen zaionean, ez zaio JANi arau autonomikoaz arduratzeko ahalmenik ematen. Beraz, nahasmena

41. Sententziaren norabidearekin bat dator: López Guerra, L. (2003): «El Poder Judicial en el Estado de las Autonomías», 95. or.

42. Iriarte Angel, F. de Borjak <www.forulege.com> web orrialdetik eta JANeko erregistrotik ateratako datuak: Iriarte Angel, F. de B. (2016): «La Casación Foral», 594. or.

43. STC 25/1981, uztailaren 14koa.

sinplifikatzearen, nahiz eta lehenengo AE-etatik kanpoko organotzat jo, ondoren kasazio foralaz arduratzeko aukera ematen zaio, AGrentzat Estatuko araudiaz arduratzeko eskuduntza soilik gordez. Hala ere, ez da JANentzat araudi autonomiko osoaz arduratzeko eskumenik gordetzen; beraz, nork hartu behar du zuzenbide forala ez den araudi autonomikoaren gaineko ardura?

Egoera horren aurrean, asko dira araudi autonomiko osoaz kasazioan JANak arduratzearen alde agertu diren autoreak, AG araudi estatalaren gaineko kasazio-errekurtsuoz arduratuko litzatekeelarik (Borrell Mestre, 2002: 299-301. Murillo de la Cueva, 2000: 95-96. Cabellos Espiérrez, 2004: 117-118). Era berean, kontrako iritziak dauzkaten autoreek uste dute Auzitegi Gorenak organo nagusi izateari utzi eta kasazio-izaera galduko duela horrelako planteamenduak aurrera eginez gero⁴⁴. Hala ere, federalismo judizialaren ideia plazaratzea interesgarria da kasu honetan; izan ere, horren arabera, tokian tokiko Botere Judizialak sortu eta AE-etako JANek Kasazio Auzitegi bezala jokatuko lukete, izan arau autonomikoa edo estatala interpretatu beharrekoa. AGren papera doktrina bateratzailearena izango litzateke, JANen arau estatalaren interpretazio ezberdinei uniformetasuna emanez, kasazioa bateratzeko helegitearen bidez. Aurkeztu dugun planteamenduak justizia-antolaketa bi planotara eramango luke: alde batetik, antolaketa autonomikoak egongo liriteke, eta, bestetik, estatala, Auzitegi Gorenak osatuko lukeena (gogoratu KA eta AN Botere Judizialek kanpo kokatzen direla). Beraz, egoera horrek Botere Judizial Autonomikoak sortzeko beharra ekarriko luke, Gobernu Organo Autonomikoak sortuz. Hala ere, orain ikusiko dugun moduan, gaur egungo antolaketa-ereduan ere egon dira saiakerak era batera edo bestera Botere Judizialaren deszentralizazioa eman eta Justizia Kontseilu Autonomikoak sortzeko.

2.1.3. Botere Judizialaren Gobernu Autonomikoa

Baldin eta aurrez aipatutako ideiak aurrera eramatea lortuko balitz, beharrezkoa litzateke Botere Judizial Autonomikoa zuzenduko lukeen gobernu-organo deszentralizatu bat sortzea. Gaur egun deszentralizazio-zantzuak gutxi dira: Bokalen Kontseilu Territorialak eta Donostiako Dokumentazio Zentroa dira organo horren eskumenpean dauden eta autonomia-erkidegoetan kokatzen diren bi erakundeak. BJKOren deszentralizazioaz asko idatz daiteke, batez ere, plazaratzen diren alternatibak ugariak izan daitezkeelako. Hala ere, bi dira, gero norberak bere ñabardurak aplikatzen dizkiolarik, proposamen nagusiak⁴⁵: alde batetik, JANetako Gobernu Salari funtzio gehiago esleitzearen aldekoak aurkitzen dira, eta, bestetik, Botere Judizialeko Kontseilu Autonomikoen alde egiten dutenak⁴⁶. Izan ere, 90eko hamarkadatik aurrera Botere Judizialaren funtzionamendua hobetzeko

44. Pedro Gonzalez-Trevijano eta Fernando Herrero-Tejedor-ren iritziak *La justicia ante la reforma de los Estatutos de Autonomía* liburuan egindako inkestetan, 98.-100. or.

45. Bi korronteak aztertzen dituzte: Cabellos Espiérrez, M.A.; Fernández de Frutos, M. eta Gerpe Landín, M. (2005): «La aproximación del gobierno del Poder Judicial a la realidad autonómica del Estado», 11. eta hurrengo or.

46. Iritzi ezberdinak biltzen dituen inkesta ikusteko: Aguiar de Luque, L.; Prego De Oliver Tolivar, A. eta Xiol Ríos, J.A. (2005): *La justicia ante la reforma de los Estatutos de Autonomía*, 112.-123. or.

hainbat proposamen egin izan dira⁴⁷. Honetan gehiegi luzatu gabe, aurreratuko dugu, artikulua dakarren ildoari jarraituz, eta Botere Judizial Autonomikoen funtzionamendurako beharrezko elementu izanda, lekuan lekuko Gobernu Organo Autonomikoak sortzearen alde kokatzen garela.

EAEko errealitate politikoan proposamen interesgarria jarri zen mahai gainean 2004ko Euskal Estatutuaren Erreformaren Proiektuan. *Ibarretxe Plana* izenez ezagutzen den proiektuaren aurrekaria Lizarrako Paktuan koka dezakegu. Bertan, Herri Batasunak bultzatuta, eta EAJ eta EA parte zirela, Euskal Herriaren subiranotasunaren aldeko asmo argia agertu zuten euskal alderdi nagusiek. Estatugintzan aurreratzeko asmoak Udalbiltza bezalako erakundeak sortzea ekarri zuen 1999ko irailaren 18ko Bilboko deklarazioaren bidez⁴⁸. Euskal Herria osatzen duten 7 lurraldeetako herrietako udalek zuten ordezkariak. Egoera horretan, Euskadirentzat estatus politiko berriaren beharra azpimarratu eta estatutua erreformatzeko testua landu zen. Gure gaiari dagokionez, proiektuaren 28. artikuluari so egin behar diogu, bertan proposatzen baitzen Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Botere Judizialaren gobernua Euskal Kontseilu Judizialari zegokiola. 28.1. artikuluan azpimarratzen da BJKOrekin lankidetzan jardungo duela batasun eta independentzia jurisdikzionalaren printzipioak bermatzeko.

Proiektua onartua izan zen Eusko Legebiltzarrean, baina Espainiako Gorteetako bozketan atzera bota zen. Hala ere, zalantzarik ez dago konstituzioaren aurkako errekurso batek aipatutako xedapena atzera botako lukeela; izan ere, EKn adierazten da Botere Judizialaren gobernua BJKOri dagokiola. Beraz, printzipioz, Konstituzioaren aldaketa ekarriko ez lukeen aukera BJKOren menpe leudekeen organo autonomikoak sortzea litzateke, nolabait erkidegoei Justizia Administrazioaren gobernuan parte hartzea bermatuz; horrek BJLOren aldaketa beharko luke soilik (Xiol Rios, 2004: 269).

EK-kezartzen dituen mugen aurrean, kolpean oztopo asko gainditzeko aukera eman eta federalismo judiziala martxan jartzeko aukera zabalduko lukeen Konstituzioaren aldaketa bat baztertu ez arren, Botere Judizial Autonomikoaren sorrerarako behin-behineko proposamen bat eskaintzen dute hainbat autorek⁴⁹: testu konstituzionala errespetatzeko nolabait sortu nahi den organo autonomikoak BJKOren menpe egon behar du, edo haren antolaketapean behintzat, aurrez ere esan dugun moduan. Aukera legoke BJKOren gailentasun hori Kontseilu Autonomikoen egintzen aurkako gora jotzeko errekursoaz arduratzeko eskumena emanez egilesteko; horrela, bere menpeko organoen jarduna kontrolatzeko boterea izango luke, gobernu-organo goren bezala jokatu. Doktrina horren arabera Kontseilu Autonomikoek ez dute

47. Proposamen ezberdinen planteamenduak aztertzeko, ikus: Xiol Rios, J.A. (1994, 2004): «La incidencia del Estado Autónimo sobre la Administración de justicia», *informe Pi i Sunyer sobre Comunidades Autonomas*; «Evaluación de los aspectos relacionados con la administración de Justicia en una futura reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña». Albertí Rivera, E. eta Lopez Guerra, L. (2000): «La adaptación del Consejo General del Poder Judicial a la estructura compuesta del Estado».

48. Estatutu politiko berriaren proiektu horri buruz: Vivancos Comes, M. (2005): «La propuesta de estatuto político de la comunidad de Euskadi ("Plan Ibarretxe")», 229. or.

49. Iritzi horiek jaso eta proposamen osatu, interesgarria eta erreala eskaintzen du: SaizZ Garitaonaindia, A. (2009): *La administración de justicia en las comunidades autónomas: situación actual y perspectivas de reforma*, 119. or.

EKren 122.2. artikuluaen aurka egiten, ez baita zalantzan jartzen BJKO Espainiako Botere Judizialaren gobernu-organoa denik. Horien iritziz, irtenbide horrek Justizia Administrazioaren kudeaketaren eraginkortasuna bermatuko luke⁵⁰. Organo horiei Justizia Administrazioaren eskumen osoa eskuratzeko bidea zabalduko litzateke baliabide material eta pertsonalei dagokienez, baita idazkari judizialei dagokienez ere. Horrez gain, garrantzitsua da konturatzeko, behin Botere Judizialak deszentralizatuta eta bi plano ezberdin sortuta (Estatua - Autonomia Erkidegoa), nork bere lurraldean jarduten duten epaile eta magistratuen eskumena ere bereganatzeko aukera edo hipotesia agertuko litzatekeela, justizia herritarrengana hurbiltzean eta hizkuntza normalkuntzaren politiken aplikazioan lagundu dezakeelarik, adibidez. Horrek ekarriko luke, gainera, epaile eta magistratuen formakuntza eta eskolaren eskumenak EAEren esku gelditzea.

3. Etorkizunean zer?: proposamenak eta ondorioak

3.1. Proposamena

Jarraian, orain arte aipatutakoa kontuan hartuta sortu dugun proposamena eta Justizia Administrazioaren etorkizuneko mapa argitzen saiatuko gara hurrengo lerroetan, labur-labur.

Gure proposamenaren helburua argia da: Botere Judiziala gaurko Autonomien Estatuan dagoen errealitate politiko eta juridikora moldatzea, herritarrenganako hurbiltasuna eta eraginkortasuna sustatuz, euskal herritarrek dituzten eskubideak bermatzeko. Konponbiderako giltza, argi eta garbi, Euskal Botere Judiziala sortzea da, etengabeko garapena beharrezkoa duen Justizia Administrazioan etorkizun emankor bat irudikatzen tresna dela uste dugulako .

Horretarako honako hiru ardatz hauek izango dira proposamenaren oinarriak:

- Botere Judizialaren Kontseilu Autonomikoa sortzea, Erkidegoko Botere Judizialaren kudeaketaz arduratzeko.
- Erkidegoak Justizia Administrazioako eskumen guztiak eskuratzeko baliabide pertsonal zein materialei dagokienez. Hori horrela izanik, administrazioako funtzionario, idazkari judizial, epaile eta magistratuak lurraldeko funtzionario bihurtuko dituen kidego autonomikoak sortzea.
- Justizia Auzitegi Nagusia Kasazio Auzitegi bihurtzea, Estatuko zein Erkidegoko araudiaz azken auzialdian arduratuz. Auzitegi Gorena doktrina bateratzeko errekurtsoaz arduratzea, benetako funtzio bateratzailea bere gain hartuz.

50. Doktrina horren jarraitzaileen erakusgarri da Carles Viverrek *La justicia ante la reforma de los Estatutos de Autonomía*, op. cit., 128. or. (Aguir de Luque, L.; Prego de Oliver Tolivar, A.; Xiol Ríos, J.A.) liburuan egindako inkestan esandakoa.

3.2. Zer ekarriko liguke Euskal Botere Judizialak?

3.2.1 Oro har, errealitate politikora moldatzea

Aipatu dugu lanean zehar 1978ko EKn Autonomien Estatuaren alde egin zela, eta horrek egitura deszentralizatuak eskatzen zituela, hala ere, Botere Judizialaren kasuan ez da lortu beste 2 botereen besteko deszentralizaziorik; gainera, emandako pauso bakarrak AE-ek bultzatutakoak izan dira (adibidez, subrogazio-klausulak edo estatutuen erreforma-saiakerak). Euskal Botere Judizialaren sorrerak errealitate autonomikora egokituko luke Justizia Administrazioa. Horrez gain, neurri ezberdinean bada ere, autore zein instituzio gehienak daude ados Botere Judizialak deszentralizazio-beharrak daukala baieztatzean. Gogoratu BJKOk berak ere *Liburu Zurian* egindako proposamenak deszentralizazioaren alde egin zuela, nahiz eta ondoren egin zen pakto politikoak proposamen horiek guztiak albo batera utzi zituen. Konstituzio Auzitegiak berak ere legeak ezartzen duenaren aurkako ebazpenak eman ditu Justizia Administrazioaren deszentralizazioari dagokionez; adibide garbiena subrogazio-klausulen legezkotasunaz erabaki zuen 56/1990 sententzian daukagu. Azaldu nahi dugu, epaiaren legezkotasuna zalantzan jar badaiteke ere, ez garela haren kontrakoak; izan ere, behin eta berriz aldarrikatu dugunez, Justizia Administrazioa eta Botere Judiziala ez daude inondik inora Autonomien Estatuaren eredura egokituak, eta, sententziak onartzen duen bezala, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen arteko talkak konpontzeko era zuzenena AE-ek eskumenak bereganatzea da. Are gehiago, pasarte horrek erakusten digu borondate politiko autonomikoaren esku dagoela formula ezberdinak bilatzea Estatuaren presionatzeko, nahiz eta lege-testuek kontrakoa adierazi, Konstituzio Auzitegia interpretazioez baliatu izan delako horien gainetik igarotzeko. Argi dago, gure ustez, Espainiako Estatuaren noraezean dagoela justiziaren antolaketari dagokionez; izan ere, ez da kokatzen estatu deszentralizatuetan Botere Judiziala antolatzeko dauden aukera ezberdinen alde. Estatu federalean jurisdikzio-batasuna bermatzeko eta askotariko Botere Judizialak harmonian aritzeko oinarriko arau batez baliatzen dira, eta, aldiz, Espainia bezalako estatu-egitura konposatuak dituzten herrialdeetan batasun zurrunaren alde egiten dute. Espainiak, nahiz eta EKren arabera argi eta garbi estatu konposatuaren taldean sartu beharko genukeen, erdibideko aukera bat hartu duela esan daiteke, AE-en alde eskumen gutxi batzuk transferituta (Cabellos Espiérrez, 2004: 76).

Beraz, argudio logiko bat baino ez den arren (baina logika argudiorik indartsuena bihurtzen da askotan, objektiboa behar lukeelako), juridikoki eta politikoki estatu-eredura egokitzen den Botere Judizial bat izateari oso garrantzitsua deritzogu. Gainera, gure erkidegoan indar gehiago hartzen du deszentralizazio-beharrak. Erakutsi dugunez, euskal lurraldeek izan zuten iraganean ere berezko Justizia Administrazioa, eta abolizioaren ondoren saiakera gutxi batzuk egin badira ere, Estatuaren jarrera immobilista gailendu da. Hori dela-eta, gure lurraldearen eskubide historikoak errespetatzeko ere balioko du gure Botere Judiziala sortzeak. Hala ere, momentuz behintzat, ez dugu etorkizuna oso argi ikusten; izan ere, Euskal Herriko gatazka politiko armatuaren amaieraren ondoren Kataluniako prozesu independentista etorri da, eta ematen du horrek gehiago handituko duela Estatu

zentralaren deszentralizazio-prozesu guztiak oztopatzeko nahia. Horrez gain, ez dugu gaur-gaurkoz proposatutakoa aurrera eramateko borondate politikorik somatzen EAEn.

3.2.2. *Justizia Administrazioaren eraginkortasuna*

Lehenik eta behin, botereen banaketaren printzipiotik abiatuta, Botere Judizialeko Kontseilu Autonomikoaren osaketaren gainean Botere Legegileak BJKOn daukan eragina baztertzeko aukera izango genuke. Izan ere, Espainian Gorte Nagusiek BJKOko kideak aukeratzeko duten botereak argi erakusten du Botere Legegilearen tentakuluak noraino iristen diren (Dato Pérez, 2009: 45-46). Horretarako, hurrengo osaketa proposatuko dugu (kopuruak zehazteke): JANeko presidentea (Kontseiluko buru izango dena), Euskal Gobernuako idazkaria, Abokatuen Elkargoek aukeratutako profesionalak, eta, azkenik, epaile eta magistratuek berek aukeratutako kideak. Euskararen presentziak bermaturik egon beharko luke, gutxienez kideen erdiek menderatu beharko luketelarik. Posible litzateke modu iraunkorren biltzen den komisiio txiki bat izatea (adibidez, presidentea, Gobernuako idazkaria, elkargo bakoitzeko ordezkari bat eta epaile eta magistratu bana) baldin eta kide asko badira, eta Kontseilua gai garrantzitsuen inguruan erabakitzeke batzea (Saiz Garitaonandia, 2009: 121). Horrela, Botere Legegilearen eragina murriztuko litzateke.

Beste alde batetik, gure Botere Judiziala izateak aukera emango liguke, aurrez aipatu dugun bezala, JAN autonomia-erkidegoko organo bihurtu eta jurisdikzioa amaitzen duen Kasazio Auzitegi izendatzeko. Nahiz eta Espainian alternatiba proposatzen dutenen korrante nagusiak arau autonomiko osoaren kasazio-helegiteaz arduratzeko eskumena soilik eman, gu haratago goaz, eta Alemania edo Estatu Batuetan indarrean dagoen federalismo judizialaren antzeko eredu indarrean jartzeko aukera mahai gainera ekarri nahi dugu, nahiz eta Espainiako Konstituzioaren aldaketa bat beharrezko izango litzatekeen, Botere Judizial Autonomikoak sortuz. Horrek Justizia Administrazioiko kidego autonomikoa sortu eta eskumen osoak baliatzea ekarriko luke, magistratu, epaile eta idazkariei dagozkienak barne. Baina, aurrekora bueltatuz, JAN eta organo jurisdikzionalen antolaketa dagokionez, proposatzen dugu AG doktrina bateratzeko auzitegi bihurtzea, eta kasazio-errekurtsoak JANek ebatzea, arau autonomiko zein estatala izanda ere, benetan AE-etan jurisdikzioa agortuko duten auzitegiak sortuz. AGk auzitegi autonomikoetan sortzen diren kontraesanak bateratzeko misioa izango luke, doktrina bateratzeko helegiteaz baliatuta, eta uste dugu helburu hori ez dela gehiegi urruntzen gaur egun legez egozten zaion funtziotik; izan ere, Konstituzioak JANEi esleitzen dien funtzioa jurisdikzioa agortzearena da, eta AGri bateratzaile izatearena⁵¹, nahiz eta gaur egun, arrazoi politikoak direla medio, legegileak nahiago duen eraginkortasunik ezarekin ordaindu Espainiaren batasunaren printzipioa bermatzea. Era horretan, AGren nortasun-bateratzailea indartu eta eraginkortasuna lortuko litzateke⁵². Hala ere,

51. Juan Carlos Campok *La justicia ante la reforma de los Estatutos de Autonomía*, 104. or. (Aguiar de Luque, L.; Prego de Oliver Tolivar, A.; Xiol Ríos, J.A.) liburuan egindako inkestan esandakoarekin bat.

52. Iritzi horren aldekoak dira: Campo, J.C., Xiol Rios, Viver, C., Gonzalez Pons, E., Guillem Vidal, Hermosin, C., Cléries, N., Mané, J., Uría, M., *La justicia ante la reforma de los Estatutos de Autonomía*, 10.-110. or.

onartzen dugu planteamendu honek EKren aldaketa, ordena guztietako errekurtsosistema berri bat eta tarte luzeagoa merezi duten beste hainbat eztabaida ematea beharko duela. Gure proposamenak AGren kongestio-egoera desblokeatzea eta JANen ardura den kasazio-errekurtsorako sarbidearen baldintzen malgutzea ere ekar lezake berekin, herritarren kasaziorako eskubidea bermatuz. Izan ere, gaur eguneko PZLren kasazio-helegitearen arauketak bi ondorio larri ditu: alde batetik, kongestioa dela-eta, AGren ardurapeko kasazio errekurtsoen ebazpenak ezagutzeko denbora luzea behar dela, eta, bestetik, legean kasazio-errekurtsua aurkezteko betekizunak oso gogorrek direla, kasaziorako eskubidea mugatuz. Azken finean, errealitate territorial eta administratiboarekin bat egiten duen antolaketa moderno bat sortzeko helburua daukagu, eraginkortasuna hobetzeko (Martín Contreras, 2005: 12).

Horrez gain, subrogazio-klausula eta eskumen batzuen transferentziak Justizia Administrazioan sortu duen konpetentzia-labirintoa konpontzeko balia dezakegu gure Botere Judiziala, kidego autonomikoak sortu eta baliabide pertsonal zein materialen eskumen osoak geureganatuz. Gainera, gure ustez, epaitegiko beste funtzionario, idazkari judicial, forentse eta auzitegiko medikuntzako institutuaz gain, bada garaia epaile eta magistratuen kidego autonomikoa ere aldarrikatzeko, gure proposamenarekin bat JAN eta haren azpiko instantziak erkidegoko organo bihurtuko baitira. Beraz, ez dago oztoporik kidego autonomikoek epaitegi eta auzitegietako funtzionario guztiak barnebiltzeko. Horrela, epaile-eskolaren eskumena ere geureganatuko genuke, eta zuzenbide autonomikoan eta hizkuntza koofizialean espezializatzeko aukera emango litzaike. Lanpostu publikoen lehiaketak EAEren esku egongo lirатеke era horretara, Estatuaren zain egon gabe, eta arlo horretan ere eraginkortasuna handitu eta benetan lurraldeko errealitatera moldatzen den froga bat jartzeko aukera egongo litzateke (bertoko zuzenbidea, euskara... froga baztertzaille bezala). Gure iritiz, Justizia Administrazioko funtzionario guztiak kidego autonomikoetan barneratu beharko lirатеke, benetan eraginkorra den zerbitzu bat emateko eta errealitate juridiko-politikora moldatzeko beharrezkoa delako.

Euskal Botere Judizialak sortuko duen eraginkortasun horrek hurbiltasuna ekarriko digu justiziarekiko bi planotan. Alde batetik, EAEn diharduen pertsonalarekiko eta erabiltzen diren baliabide materialekiko gestio lokalizatu bat aurrera eramateko aukera izango genuke. Frogatuta dago deszentralizatu diren beste arloetan erkidegoen antolaketak Estatuarenak baino eraginkorragoak direla (Osasuna, Hezkuntza...), eta, beraz, hurbiltasun hori zerbitzuaren kalitatea igotzeko giltza da. Beste alde batetik, justiziaren eta herritarren arteko harremana hurbiltzea ekarriko luke. Funtzionarioekin duten hartu-emanen haien eskubideak bermatuko lirатеke (hizkuntza-eskubidea batez ere); horrez gain, kasazio-errekurtsu bat aurkezteko aukerak zabaltzeak eta hori erkidegoan ebazteak ere justiziarri egiazkotasun handiagoa ematen diola uste dugu.

3.2.3. Hizkuntza-normalizazioa

Artikulu honetan aipatu beharrezkoa zen hizkuntzaren gaia; izan ere, Espainiako Estatuan hizkuntza koofizialak dituzten lurraldeek pairatzen duten diglosia-egoeraren ispilu argia da Justizia Administrazioa. Gauzak horrela, hizkuntza-normalizazioarekiko immunea da Justizia Administrazioa (Urrutia Libarona, 2013:

152), eta norabide elebakarra hartu du (Agirreazkuenaga Zigorraga, 2003: 390). Gaur egun, bi arazo larri dauzkagu: alde batetik, BJLOren zenbait xedapenek hizkuntza koofizialen ezagutza meritutzat baino ez duela jotzen (Etxeberria Guridi, 1999: 27), adibidez 471. artikuluan Justizia Administrazioaren lanpostuetarako lehiaketetan hizkuntza-proba meritu bezala baloratzen da, eta, beste alde batetik, BJLOren 231. artikuluan ezartzen dela posible dela prozesuan hizkuntza koofiziala erabiltzea soilik alderdietako bat ez bada ukatzen, hizkuntza ez ezagutzeak sortzen duen defentsa-gabezia aldarrikatuz.

Euskal Botere Judizialaren sorrerak arazo horiei konponbidea emateko aukera emango digu. Lehenik eta behin, behin epaile, magistratu eta idazkariak kidego autonomikoan barneratuta, lehiaketa publikoak deitzeko eskuduntza ere EAEn esku legoke. Horrela, hizkuntza meritu huts izatetik betekizun izatera igaroko litzateke, proba baztertzailerik bihurtuz. Baina, egia da jada lanean dauden funtzionario elebakarren kasuan euskaratze-plan baten beharra izango genukeela, bestela, ez genioke arazoari erroto helduko.

Bigarrenik, aipatu dugun BJLOren 231. artikulua planteatzen duen arazo hori gainditzea beharrezko jotzen dugu. Gure ustez, ez dira euskal herritarren eskubide linguistikoak errespetatzen, baldin eta alderdietako batek aukera badauka prozesua gaztelaniara bilakatzeko, ondoren itzulpenetan oinarritutako euskarazko komunikazio bat emanez. Itzulpenek hurbiltasun-printzipioaren aurka egiten dute, eta ez dute hizkuntzaren komunikazioaren parte den elementu emozionala transmititzen (Carnelutti, 1971: 216). Kontuan izan behar dugu epailea hartzailea dela, eta mezua barneratze horretan komunikazioaren funtsa diren oinarri batzuk galtzen direla interpreteen bidez. Hala ere, komunikaziotik haratago, euskara EAEn, eta Nafarroako, hizkuntza ofizial denez gero, bertoko herritarrok eskubidea daukagu prozesu judizial zein Justizia Administrazioko beste edozein egintzatan gure hizkuntza erabiltzeko. Horretarako aukera emango liguke Euskal Botere Judizialak.

3.2.4. Estaturagintza

Azkenik, azpimarratu nahi dugu Botere Judizial propioa sortzea estaturagintzan beste aurrerapauso bat litzatekeela; izan ere, egia da proposatu dugun antolaketa judiziala estatu independente batek izan dezakeenarekin konpara dezakegula, bere muga nabarmenekin noski. EAEn herritarrek merezi duten zerbitzuaren kalitatea bermatzeaz gain, gure ustez euskal lurraldeek duten eskubide historikoaren errespetutik abiatuta ere argudiatu daiteke Euskal Botere Judizial propioaren sorrera. Estaturagintza eta euskal herritarren ongizatea txanpon bereko bi aldetzat jotzen ditugu, eta, beraz, espero dugu borondate politikoa behingoz iraultzea eta burujabetzaren bidean aurrerapausoak ematen hastea.

Bibliografía

- Agirreazkuenaga Zigorraga, I. (2003): *Diversidad y convivencia lingüística*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , (1986): «Ohizko foru sistema eta Hego Euskal Herriko liberalen portaera ideologikopolitikoak», *Jornadas sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos*, UPV-EHU, Bilbo, 83-101.
- Aguiar de Luque, L. (2005): «Poder Judicial y reforma de los Estatutos de Autonomía», *La justicia ante la reforma de los Estatutos de Autonomía*, Thomson Aranzadi, Zizur Txikia, 21-50.
- Albertí Rivera, E. eta Lopez Guerra, L. (2000): «La adaptación del Consejo General del Poder Judicial a la estructura compuesta del Estado», in *Batzuen Artean, La justicia a catalunya en el marc d'un Estat compost*, IEA/Generalitat de Catalunya, Bartzelona.
- Andres Ibañez, P eta Movilla Álvarez, C. (1986): *El Poder Judicial*, Tecnos, Madril.
- Angulo y de la Hormaza, J.M. (1976): *La abolición de los fueros e instituciones vascongadas*, Auñamendi, Donostia.
- Aparicio Pérez, M.A. (1992): «El Poder Judicial», *Revista de Derecho Político*, **37**, 161-176.
- , (2003): «La difícil relación entre la organización del Poder Judicial y el Estado Autonomico», *Poder Judicial y modelo de Estado*, Atelier, Bartzelona, 87-102.
- Ayerbe Iribar, M.R. (2000): «La administración de justicia en los territorios vascos», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País Vasco*, **LVI-1**, 5-51.
- Balaguer Callejón, F. (2004): «Poder Judicial y Comunidades Autónomas», *Revista de Derecho Político*, **47**, 53-68.
- Biurrun Mancisidor, G. (2005): «El Poder Judicial», *Herri-Arduralaritzako Aldizkaria*, **73 (II)**, 79-94.
- Borrell Mestre, J. (2002): *Estado autonómico y Poder Judicial*, Atelier, Bartzelona.
- , (2005): «Justicia y Comunidades Autónomas», *Revista Española de la Función Consultiva*, **4**, 139-140.
- Botere Judizialeko Kontseilu Orokorra (1997): *Libro Blanco de la Justicia*, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, 1997
- Cabellos Espiérrez, M.A. (2004): «La adecuación del Poder Judicial al modelo de Estado», *RVAP*, **68**, 77-124.
- Cabellos Espiérrez, M.A.; Fernández de Frutos, M. eta Gerpe Landín, M. (2005): «La aproximación del gobierno del Poder Judicial a la realidad autonómica del Estado», *RVAP*, **72**, 69-94.
- Calderon Cuadrado, M.P. (1997): «El Tribunal Superior de Justicia», *Revista Valenciana d'Estudis Autonòmics*, **18**, 145-184.
- Carretero Gonzalez, C. (2004): «Estructura y funcionamiento de la Oficina Judicial», *Revista de Derecho Procesal*, **1-3**, 153-174.
- , (2003): «La abolición de los Fueros vascos», *Ayer*, **52**, 117-150.
- Castells Arteché, J.M. (2013): «La aplicación del estatuto de octubre de 1936: la acción institucionalizadora del Gobierno Vasco», *Iura Vasconiae*, urriko zk., 491-513.
- Celaya Ibarra, A. (1988): «El poder judicial y los estatutos de Autonomía», *Simposium sobre el Estatuto Vasco de 1936*, IVAP, Bilbo, 179-202.
- , (1994): «País Vasco, de los Fueros a los Estatutos», *Cuenta y Razón*, **86**, 93-100.
- , (1994): *Tradición y Modernidad. De los Fueros a los Estatutos*, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Bizkaiko Batzordea, Bilbo.
- Dato Pérez, M.A. (2009): «De la separación de poderes», *La Razón Histórica*, **7**, 44-46.

- del Castillo Vera, P. (1980): «Referendum del Estatuto de Autonomía en el País Vasco», *Revista del Departamento de Derecho político*, **5**.
- Delgado del Rincon, L.E. (2002): *Constitución, Poder Judicial y responsabilidad*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madrid.
- Diez Picazo, LM. (1991): *Regimen constitucional del Poder Judicial*, Civitas, Madrid.
- Dorado Picón, A. (2004): «El Secretario Judicial y la Oficina Judicial tras la reforma de la Ley Orgánica del Poder Judicial», *Revista de Derecho Procesal*, **1-3**, 213-246.
- Enríquez Fernández, J. eta J.C. (1988): «La estructura foral-judicial de Vizcaya en el Antiguo Régimen», *II Congreso Mundial Vasco, Congreso de Historia de Euskal Herria*, III, Txertoa, Donostia, 51-61.
- Escarzaga, E. (1927): *Avellaneda y la Junta General de las Encartaciones*, Emeterio Verdes, Bilbo.
- Etxeberria Guridi, J.F. (1999): «El euskera en la administración de justicia», *RVAP*, **53**, 31-89.
- Gómez Rivero, R. (1986): «Alcalde», *Ahotsa, Diccionario Enciclopédico Vasco*, Auñamendi, XXI, Donostia, 442 eta 443.
- Imaz Zubiaur, L. (2010): «Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko prozedura judizialak, Euskal Autonomía Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian: kasazioa eta berrikuspena», *Zuzenbide Fakultatearen Bizkaiko Atalaren eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen Diziplinarteko II. Jardunaldiak*, EHU, Bilbo.
- Iriarte Angel, F. de B. (2016): «La Casación Foral», *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos del futuro*, Eusko Legebiltzarra, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Gasteiz, 579-605.
- Irigoras Alberdi, A. (2007): «Eskubide historikoen atarian: Forutasuna eta sistema juridiko liberala XIX. Mendean», *Boletín de la Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia Aldizkaria*, **13**, 51-69.
- Lalinde Abadía, J. (1983): *Iniciación histórica al Derecho español*, 3. edizioa, Ariel, Bartzelona.
- Larrazabal Basañez, S. (2004): *Derecho público de los territorios forales*, IVAP, Oñati.
- Llorente, J.A. (1806-1808): *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas en que se procura investigar el estado civil antiguo de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya y el origen de sus fueros*, 5 liburuki, Imprenta Real, Madrid.
- López Guerra, L. (2003): «El Poder Judicial en el Estado de las Autonomías», *Constitución y Poder Judicial; XXV aniversario de la Constitución*, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Madrid, 83-112.
- Lorca Navarrete, A.M. (1995): *El Derecho Procesal en el Fuero Vasco*, Dykinson, Madrid.
- , (2009): *Poder Judicial ¿Garantía de la potestad jurisdiccional constitucional? ¿No invocar el Poder Judicial en vano!*, Instituto Vasco de Derecho Procesal, Donostia.
- Martín Contreras, L. (2005) «Poder Judicial y Autonomías», *Diario La Ley*, **6.387**.
- Monreal Zia, G. (2001): «La evolución histórica de la Administración de Justicia en los Territorios Vascos Occidentales», in Tamayo Salaberria (koor.): *Justicia y Autogobierno. Jornadas Internacionales celebradas en Donostia el 11 y 12 de febrero de 2000*, Donostia, 64-84.
- Murillo de la Cueva, P.L. (2000): «El Poder Judicial en el Estado Autonómico», *Teoría y realidad constitucional*, UNED, **5**, 89-114.
- Orella Unzué, J.L. (2006): «Las hermandades vascas en el marco de la Santa Hermandad como instrumento de control de delitos e impartición de penas», *Clío & Crimen: Revista del Centro de Historia del Crimen de Durango*, **3**, 106-111.
- Pérez Núñez, J. (1996): *La Diputación Foral de Vizcaya. El régimen foral en la construcción del Estado liberal (1808–1868)*, Centro de Estudios Constitucionales, Madridgo Unibertsitate Autonomoa, Madrid.

- Pérez-Cruz Martín, A.J. (2012): «La competencia del Estado en materia de legislación procesal. Una reflexión crítica del art. 149.1.6ª CE (a propósito de la STC 21/2012 de 16 de febrero de 2012)», *Universidade da Coruña Práctica de tribunales, sección comentarios de jurisprudencia*, Coruña, Wolters Kluwer, 94.
- Porrás Ramírez, JM. (2013): «Los Tribunales Superiores de Justicia en el Estado Autonomico», in M. Gerpe Landín eta M.A. Cabellos Espiérrez (koor.), *Poder Judicial y modelo de Estado*, Atelier, Bartzelona, 109-129.
- Portillo Valdés, J.M. (1989): «Momento preconstituyente, debate constitucional: las Provincias exentas y la Monarquía Hispana en la crisis del Antiguo Régimen», *Materiales para el estudio de la Constitución de 1812*, Tecnos eta Andaluziako Legebiltzarra, Madril, 647-658.
- Rigano, F. (1982): *Costituzione e potere giudiziario*, Ceda, Padua.
- Rubio Porres, C. (1997): *Fueros y constitución, la lucha por el control del poder (País Vasco, 1808-1868)*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Saiz Garitaonandia, A. (2009): *La administración de justicia en las comunidades autónomas: situación actual y perspectivas de reforma*, IVAP, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Sala Sanchez, P. (2003): «El gobierno del Poder Judicial», *Constitución y Poder Judicial; XXV aniversario de la Constitución*, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Madril, 219-260.
- Terol Becerra, M.J. (2012): *Reivindicación autonómica sobre el gobierno desconcentrado del Poder Judicial*, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Urrutia Libarona, I. (2013): «Derechos fundamentales y derechos lingüísticos en el ámbito de la justicia», *Poder Judicial y modelo de Estado*, Atelier, Bartzelona, 151-195.
- Vivancos Comes, M. (2005): «La propuesta de estatuto político de la comunidad de Euskadi ("Plan Ibarretxe")», *Revista Española de la Función Consultiva*, 4, 227-274.
- Xiol Rios, J.A. (1994): «La incidencia del Estado Autonómico sobre la Administración de justicia», *Informe Pi i Sunyer sobre Comunidades Autonomas*, Fundació Pi i Sunyer d'estudis autonòmics i locals, Bartzelona.
- , (2004): «Evaluación de los aspectos relacionados con la Administración de Justicia en una futura reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña», *Estudios sobre la reforma del Estatuto*, Instituto de Estudios Autonómicos, Bartzelona, 231 eta hurrengo or.
- , (2005): «El poder judicial y la construcción del Estado Autonómico», *La justicia ante la reforma de los Estatutos de Autonomía*, Thomson Aranzadi, Zizur Txikia, 65-96.

